

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	ABELTZAINZAKO USTIATEGIKO INSTALAZIOAK, MAKINAK ETA EKIPAMENDUAK (zeharkakoa)	Iraupena	90
Kodea	MF0006_2		
Lanbide-arloa	NEKAZARITZA		
Lanbide-eremua	Abeltzaintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Untxi-produkzio intentsiboa	Maila	2
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Ugalketarako eta haragitarako untxiak produzitzea.	Iraupena	90
	Hegazti-produkzio intentsiboko lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak.		40

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0006_2 ABELTZAINZAKO USTIATEGIKO INSTALAZIOAK, MAKINAK ETA EKIPAMENDUAK MUNTATZEA ETA MANTENTZE-LANAK EGITEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Abeltzaintzako instalazioak prestatzeko, garbitzeko, desinfektatzeko, intsektu-garbigeta egiteko, arratoi-garbigeta egiteko eta egokitzeko eragiketak -premien eta hondakinak behar bezala desagerraraztearen eta azpiproduktuak aprobetxatzearen arabera programatuta daudenak- egitea.

EI1.1 Instalazioen eta horien erregulazio- eta kontrol-gailuen erabilera eta funtzionamendua azaltzea.

EI1.2 Animaliak instalazioan sartu aurretik (dena barruan dena kanpoan sistema) gauzatu beharreko jardunak zehaztea eta azaltzea.

EI1.3 Garbitzeko, desinfektatzeko, intsektu-garbigeta egiteko, arratoi-garbigeta egiteko eta egokitzeko eragiketak egiteko ekipamendu eta produktu egokiak ez ezik, horiek erabiltzeko baldintzak ere identifikatzea eta zerrendatzea.

EI1.4 Txizak eta simaurrak kudeatzeko eta gorpuak kentzeko kudeaketan gauzatu behar diren jardunak zehaztea eta azaltzea.

EI1.5 Abeltzaintzako ustiategietan animaliak babesteko neurriak eta laneko arriskuak prebenitzeko, ingurumena babesteko eta elikadura-segurtasuneko neurriak -instalazioak egokitzeko eragiketei eragiten dietenak- adieraztea.

EI1.6 Behar bezala identifikatutako instalazio baten kasu praktiko batean:

- Instalazioko elementuak prest jartzea, ondoren abian jartzeko.
- Instalazioaren elementuak abian jartzea eta gelditzea.
- Kontrolatzeko eta erregulatzeko elementuen funtzionamendua egiaztatzea.
- Garbitzeko, desinfektatzeko, intsektu-garbigeta egiteko, arratoi-garbigeta egiteko eta egokitzeko lanak une eta baldintza egokietan egitea.
- Norberaren segurtasunerako neurriak aplikatzea.
- Instalazioa behar bezala maneiatzea.

A2: Abeltzaintzako instalazioen muntaketa-eragiketak eta (erabilerako) lehen mailako mantentze-lanak behar den segurtasunarekin egitea.

EI2.1 Ustiategietan jarritako sistemen eta horien erregulazio- eta kontrol-gailuen erabilera eta funtzionamendua azaltzea.

EI2.2 Ustiategietan jarritako sistemen osagaiak deskribatzea.

EI2.3 Sistema osagarrien (instalazio elektrikoak, ur-instalazioak, aireztapen-instalazioak, berokuntza-instalazioak eta klimatizazio-instalazioak) osagaiak eta horien mantentze-lanak deskribatzea.

EI2.4 Abeltzaintzako instalazio txikiak muntatzeko prozesuak, materialak eta baliabideak deskribatzea.

EI2.5 Mantentze-lan nagusiak azaltzea, eskatzen diren argibide teknikoak kontuan hartuta.

EI2.6 Ustiategietan instalazioetan eta biltegietan behar diren aireztapen-, berokuntza- eta klimatizazio-baldintzak deskribatzea.

EI2.7 Prestakuntza handiagoko langileak behar dituzten mantentze-lanak identifikatzea.

EI2.8 Laneko arriskuak prebenitzeko neurriak -abeltzaintzako instalazioen erabilerako mantentze-lanei eragiten dietenak- adieraztea.

EI2.9 Kasu praktiko batean (simulazioko instalazio elektrikoak, ur-instalazioa, aireztapen-instalazioa, berokuntza-instalazioa edo klimatizazio-instalazioa), honako lan hauek egin behar dira:

- Konponketa- eta mantentze-lanak egitea.
- Elementu elektriko sinpleak (argiztapena, entxufeak, etengailuak, fusibleak) muntatzea eta desmuntatzea.
- Hodiak, balbulak, iragazkiak eta bestelako elementu sinpleak muntatzea eta desmuntatzea ur- eta berokuntza-instalazioetan.
- Argi akastuneko linea elektrikoak konektatzea eta isolatzea.
- Instalazioa abian jartzea eta gelditzea.

EI2.10 Ekipamendu edo instalazio txiki bat muntatzeko kasu praktiko batean, honako lan hauek egin behar dira:

- Sistemaren elementu sinpleak muntatzea eta desmuntatzea.
- Sistemak muntatu ondoren, behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzea.

- Aurreko eragiketak trebetasunez egitea, eskatutako lan-erritmoak eta lan-kalitateak lortuz, eta laneko arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko neurriak aplikatuz.

A3: Makinak erregulatzea eta horiekin jardutea, laneko arriskuak prebenitzeko arauak jarraituz, arrazoizko errendimendua lortzeko.

EI3.1 Makinei eragiteko mekanismoak deskribatzea.

EI3.2 Ekipamenduen funtzioei eragiteko prozesua azaltzea, fabrikatzailearen argibideei jarraituz.

EI3.3 Ekipamenduak erregulatzea eta doitzeko prozedurak deskribatzea, lan-baldintzen arabera.

EI3.4 Makinak eta ekipamenduak erabiltzeari dagokionez, segurtasun-arauak adieraztea, arriskuak -norberarenak eta orokorrak- saihesteko.

EI3.5 Makinak maneiatzeko prozesuei eragiten dieten neurriak -laneko arriskuak prebenitzekoak- adieraztea.

EI3.6 Kasu praktiko batean:

- Eragiteko elementuak eta horien funtzioa identifikatzea.
- Lan-aldagai zuzenak (abiadura, doikuntzak eta erregulazioak, ibilbideak eta laneko zirkuituak) zehaztea.
- Traktoreekin eta trakzio-ekipamenduekin trebetasunez jardutea, eskatzen diren lan-erritmoak eta -kalitatea lortuz.
- Erabilitako makinak eta ekipamenduak erregulatzea, oinarritzko segurtasun-arauak aplikatuz eta eskatzen diren lan-erritmo eta -kalitateak lortuz.
- Makinen eta ekipamenduen lan-ahalmenak, errendimenduak eta efizientziak kalkulatzeko.

A4: Makinak eta ekipamenduak erabiltzeko mantentze-lanak, eta makina eta ekipamendu horien oinarritzko konponketak eta egokitzapen sinpleak gauzatzeko eragiketak egitea, materialak eta lanabesak behar den trebetasunez eta modu garbian eta seguruan erabiliz.

EI4.1 Ustiatetik makinen eta ekipamenduen mantentze-lan nagusiak eta eragiketa horien maiztasuna deskribatzea eta mantentze-lanetako programaren argibide eta agindu teknikoak interpretatzea.

EI4.2 Lehen mailako mantentze-lanak eta oinarritzko konponketa egiteko behar diren lanabesak eta erremintak deskribatzea.

EI4.3 Ustiatetik makinen mantentze-lanak egiteko erabilitako inplementu, ordezkotresna eta material garrantzitsuenen (olioak, iragazkiak, erregaiak, uhalak, uhal garraiatzaileak, amaigabeak eta bestelakoak) ezaugarriak azaltzea.

EI4.4 Laneko arriskuak prebenitzeko neurriak -ustiatetik makinak eta ekipamenduak erabiltzeko mantentze-lanei eragiten dietenak- adieraztea.

EI4.5 Espezifikazio teknikoari nahiz erabilera-espezifikazioari dagokionez behar bezala zehaztatutako makina edo ekipamendu baten kasu praktiko batean:

- Makinaren edo ekipamenduaren lehen mailako mantentze-lanak egiteko une bakoitzean egin behar diren eragiketak deskribatzea
- Dagozkien mantentze-lanak egiteko behar diren lanabesak zehaztea.
- Hautatutako erremintak trebetasunez maneiatzea.
- Langile espezializatuek tailerrean egin behar dituzten konponketak edo hobekuntzak eta ustiatetik bertan egin daitezkeenak bereiztea.
- Makinaren mantentze-lanak egin ostean, makina behar bezala dabilela egiaztatzea.
- Egindako mantentze-lanak eta ikusitako gorabeherak erregistratzea, eragiketa errepikatzea gomendatzen den denbora adieraziz.
- Laneko arriskuak prebenitzeko arauak aplikatzea.
- Mantentze-lanen hondakinak desagerraraztea laneko arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko arauak betez.

A5: Laneko arriskuak prebenitzeko neurriak ustiatetik instalazioetan eta makinaren eta ekipamenduen erabileran aplikatzea, neurri horiek lan-egoerara egokituz eta ingurumena zainduz.

EI5.1 Ustiatetik erabilitako makinek eta ekipamenduen nahiz instalazioek bete behar dituzten eskakizun higienikoak eta norberaren segurtasunari buruzko eskakizunak azaltzea eta horiek behar bezala erabiltzeko behar diren neurriak deskribatzea.

EI5.2 Ustiatetik makinen eta ekipamenduen nahiz instalazioen funtzionamenduak ingurumenean duen eraginaren faktoreak identifikatzea.

EI5.3 Ingurumena babesteko neurrien garrantzia justifikatzea.

EI5.4 Instalazioetan dauden eta makinak nahiz ekipamenduak erabiltzeak dakartzan arrisku-faktore ohikoak identifikatzea; horien kausak aztertzea eta ondorioak ateratzea.

EI5.5 Egingo diren eragiketarako norbera babesteko egokiak diren jantzien eta elementuen ezaugarriak eta horiek erabiltzeko modua deskribatzea.

EI5.6 Ustiatetik makinak eta ekipamenduak nahiz instalazioak maneiatzeari dagokionez, segurtasun-gailuak eta -neurriak identifikatzea, eta higienari nahiz ingurumena babesteari buruzko arauak ezagutzeko.

Edukiak

1. Abeltzaintzako ustiategiaren instalazioen osagaiak eta prestaketa

- Abeltzaintzako ustiategiaren alojamendu- eta instalazio-motak eta -sistemak.
- Elikadura solidoa eta/edo likidoa biltegitzeko, prestatzeko eta banatzeko instalazioak.
- Pabiloien ingurumen-erloto eskakizunak:
 - Pabiloien ingurumen-faktoreak: hezetasuna, tenperatura eta aireztapena, berokuntza, hoztea eta argiteria.
 - Ingurumen-kontrolerako sistema automatikoak.

- Bestelako ondasun-multzoak biltegitzeko eta kontserbatzeko instalazioak.
 - Bestelako instalazioak eta lanabesak.
- 2. Ur-, elektrizitate-, berokuntza-, aireztapen- eta klimatizazio-instalazioetako osagaiak, mantentze-lanak eta oinarrizko konponketak.**
- Ur-instalazioak: deposituak, sarea, edontziak, iragazkiak, ponpak, desinfekzio-ekipamenduak eta abar.
 - Abeltzaintzako ustiategiko instalazio elektrikoak.
 - Berokuntza-, aireztapen- eta klimatizazio-instalazioak.
 - Instalazio osagarriak.
- 3. Garbitzeko, desinfektatzeko, intsektu-garbigeta egiteko, arratoi-garbigeta egiteko, azpiproduktuen kudeaketa gauzatzeko eta hondakinak desagerrarazteko ekipamenduak.**
- Garbitzeko eta desinfektatzeko ekipamenduak, materialak eta produktuak: ezaugarriak, osagaiak, erregulazioa eta mantentze-lanak.
 - Intsektu-garbigeta egiteko eta arratoi-garbigeta egiteko ekipamenduak eta produktuak: ezaugarriak, osagaiak, erregulazioa eta mantentze-lanak.
 - Azpiproduktuak kudeatzeko eta aprobetxatzeko nahiz hondakin organikoak, kimikoak eta biologikoak desagerrarazteko instalazioak.
 - Txizak desagerraraztea, desagerrarazteko sistemak, eta horiek desagerraraztearen ondorioz ingurumenean sortzen diren arazoak.
 - Azienda garraiatzeko ibilgailuak hartzea, garbitzea eta desinfektatzea.
 - Gai horrekin lotuta dagoen indarreko araudia.
- 4. Prozedura seguruak instalazioen erabilerari dagokionez.**
- Ustiategiko instalazioak erabiltzean istripuak eta kalteak izateko arriskuak eta horien prebentzioa.
 - Sistemak, instalazioak eta norbera babesteko elementuak.
 - Produktu toxikoak eta arriskutsuak manipulatzeko eta biltegitzea: erregaiak eta produktu sukoiak.
 - Lubrifikatzaileak.
 - Medikamentuak manipulatzeko, biltegitzea eta erregistratzea.
 - Instalazioak erabiltzean ingurumena zaintzea.
 - Gai horrekin lotuta dagoen indarreko araudia.
- 5. Abeltzaintzako ustiategiko makinak eta ekipamenduak.**
- Abeltzaintzako ustiategian dauden premiak makinei eta ekipamenduei dagokienez.
 - Motak, osagaiak, erregulazioa eta egokitzapenak.
- 6. Abeltzaintzako ustiategiko makinaren eta ekipamenduen lehen mailako mantentze-lanak eta oinarrizko konponketak.**
- Makinen eta ekipamenduen lehen mailako mantentze-lanak egitea.
 - Abeltzaintzako ustiategiko makinaren eta ekipamenduen mantentze-lanak eta oinarrizko konponketa egiteko materialak.
 - Lubrifikatzaileak. Ezaugarriak. Saikapena eta aplikazioak.
 - Erregaiak. Ezaugarriak. Motak.
 - Beste material batzuk.
- 7. Abeltzaintzako ustiategiko makinak eta ekipamenduak erabiltzeko prozedura seguruak.**
- Makinak eta ekipamenduak erabiltzean istripuak eta kalteak izateko arriskuak eta horien prebentzioa.
 - Makinetako eta ekipamenduetako babes-elementuak.
 - Makinen eta ekipamenduen erabileran ingurumena zaintzea.
 - Makinen eta ekipamenduen erabileran norberaren higieena eta babesa.
- 8. Lehen laguntzak eta larrialdi-egoerak ustiategian.**
- 9. European, estatuan, autonomia-erkidegoan eta tokian-tokian indarrean dagoen araudia, modulu honekin lotura duena.**

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.

- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Untxi-produkzio intentsiboa